

15. zenbakia
2000ko abendua

U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

U K

Aketza Sanchez

Telebistako saio batean agertu
izanak Berangoko gazte hau
ospetsu bihurtu du egun batetik
bestera

IRUdia

erre artean

Algortako plazak gaztain
erreen sunda hartzen du
Gabonak aldera. Metroko
geltoki modernoaren
sarreratik metro batzuetara
tradizioek ere badute lekua.
Osasuna eta plazerra!



ARGAZKIA: MIKEL MARTINEZ

ARGITARATZAILEA: Boluntzaria E.R.E.
 HELBIDEA: Amesti 6, 4. solairua, 5. hellegia 48990 GETXO
 e-mail: aldizkari@euskaltz.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37
 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
 ERREDAKZIOA: Fati Eskerra, Andoni Ussa, Raul Agirre
 ARGAZKI ARDURADUNA: Mikel Martinez
 TESTUEN ORRAZKETA: Joshua Butron
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia
 MARRAZKILARIA: Goñi Vázquez
 KOLABORATZAILERAK: Bitor Egurolo, Jokin de Pedro, José Ignacio Lobo, Itaso Arana, Gaizka Escudero, Unai Elorriaga, Algotzako Bernolari Eskola, Akaitze Kamiranga, Xabier Paiz
 ADMINISTRAZIOA: Konrado Mugerza
 PUBLIZITATEA: Amaia Bilbao (94 491 13 37)
 FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799

Osoik edo zati, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, ez da gaituzten dago.

© BOLUNTZARRETA

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta oskara elkarteen TOPAGUNEko partidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jaso du

Salsidu 5, 1. solairua 48990 Algora

TOPAGUNEa

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Kostuak direla eta, ezinezkoa zaigu aldizkaria egin, inprimatu eta zuoi musutruk etxera bidaltzea.

gogoratu,
 beharrezkoa da
 ORDAINTZEA
 hilabetero aldizkaria
 etxean
 jasotzeko

2.000 pta./ urte
 94 491 13 37

FLASHA

AMAZOAZ Mikel Martinez

SORNE UNZUETA "UTARSUS" Abandon jaio zen 1900. urtean. Orainsu bete ditu, beraz, ehun urte, mende bat alegia. Ez da, baina, geldirik egon. Euskara hamasei urte zituela ikasi bazuen ere, andereño ibili zen luzaro Bilbo eta inguruko ikastoletan. Politikan ere murgildu zen Sorne: "Emakume Abertzale Batza" deitutakoaren partaide eta hizlaria izan zen. Egukarietan ere agertu zen bere ahotsa, hezkuntza eta politikari buruzko artikuluetan batez ere. Espainiako Gerraren ondoren, erbestera joan behar izan zuen, Frantzia aldera. Han Erresistentziako kide izan zen Jesus Maria Leizaolarekin batera (gero erbesteko Eusko Jaurlaritzako lehendakari). 1953. urtean etorri zen hona berriro; Algotara, hain zuzen ere. Lehendik ere idatzi zituen arren, bertan biribildu zituen hainbat poema eta narrazio. 1997. urtean Labayru Ikastegiak argitaratu zizkion lanak, Idazlan guztiak izenburupean. Bizitzaren erdira oraintxe heldu den Sornek

San Jorge eta Herensugea

hau ezli kantsagarria!

ene bada!

ole, flamenkoa

clap!

jainkoarren! zori grazia daukate!

Mari Carmen Fernandez

“Etxean nahi ditugu; horixe da gure lema”

Beste hainbat gurasok bezala, aspaldian dauka semea kartzelan, urrun, oso urrun. Senideak taldeko kidea da eta eurekin batera duela lau urte egunero ateratzen da kalera, isilean, bere semea eta beste hainbat lagunek pairatzen duten egoera salatzeke, euren eskubideak aldarrikatzeko.

Mari Carmen, zu Senideak elkarteko partaidea zara. Zer da Senideak?

Preso politikoen familiarrak gara, besterik ez. Hau horrela izanik, gure artean pentsamolde ezberdinak daude, jakina. Baina denok helburu bera dugu: gure senideak; eta horretan denok ados gaudе. Eta horregatik joera ezberdineko lagunek lekua dukate hemen. Eta gero, badaude familiako inor kartzelan ez daukatena eta laguntzen gaituztenak; elkartasun horrek, niretzat behintzat, ez dauka preziorik, izugarri estimatzen dut.

Labur-labur, posible bada, zer eskatzen duzue?

Batez ere gauza bi. Alde batetik, gure seme-alaben dispersio ilegal horren bukaera eta dagozkien eskubideak errespetatu daitezela. Pentsa ezazu zenbat jende, gazte zein nagusi hil den errepideetan. Gure seme-alabek nahikoa dute ezartzen dizkieten zigor izugarriekin. Eta bestetik, beste gauza oso garrantzitsu bat eskatzen dugu: hemen badago gatazka politiko bat, eta horregatik, politikoei gatazka honen konponketa eskatzen diegu. Nahi dutena eginda, baina konpon dezatela, arazoaren sustraia politikoa delako.

Oro har, zein da preso-en egoera?

Ba, txarra, oso txarra. Duela hamar urteko komunikatuak atera ditzaiket eta ohartzen naiz gai horretan egoerak onera baino, txarrera egin duela. Beno, jendearen kontzientziario asko aurreratu da, baina gobernuari da-

MUGITZEN DIRA

gokionean, ezer ez. Jendeari gaia azaltzen diogunean, zergatik gauden katelean egunero egoera hau salatzen, %90 gure eskakizunekin bat datoz, alde humanitarioetik soilik bada ere. Guk presoak etxean nahi ditugu, horixe da gure lema. Onarpen handia dauka eskakizun honen, hainbat udalek eta Gasteizko Legebiltzarrak be bat egin dute eskari horrekin, baina hemen ez da ezer mugitzen.

Zer tratu jasotzen duzue kartzelatan?

Zer esango dizut, ba! Pentsatu, duela gutxi hiru eguneguz egon nintzen nire semea non zegoen jakin barik, eta egunero deitzen nuen. Bisitan goazenean dena dira eragozpenak, aitzakiak... Aspertu nahi gaituzte, txantajea egiten digute. Teoriazko eskubideko estatu baten ize- nean, boterearen mende-



“Gauza oso garrantzitsu bat eskatzen dugu: hemen badago gatazka politiko bat, eta horregatik, politikoei gatazka honen konponketa eskatzen diegu”

ku baino ez dugu jasotzen. Eta gero nik badaikit, sarritan, gure seme-alabek ez digutela pairatzen dituzten hainbat gauza kontatzen, gehiago sufritu ez dezagun.

Nondik ateratzen duzu indarra aurrera segitzeko?

Jendea da garrantzitsua. Nire senarra zenak ez zuen nire semearen lagunik ezagutzen. Atxilotu ondoren ezagutu zituen eta harrিতa geratu zen bene-benetako lagunak zirela ikusi zuelako. Gazte jendea, asteburuak galtzen dituztenak, euren diru apurrarekin ez dakit

nongo kartzelan bere lagunak bisitatzeko. Nik hau ez dut sekulan ahaztuko, aurrera segitzera izugarri lagundu dit. Gero zera be esan nahi dut, hainbat erakundetan udalean zein Elizan esaterako, hartu, ondo hartu gaituztela eta gure arazoak entzuko prest azaldu izan direla, baina gero, egiazko ordua heldu denean.. ba... atzera egin dute. Eta alde horretatik, dezepzio handiak hartu ditut.

Lau urtez, egunero kalean isilean protestaka...

Bai, behar-beharrezkoa delako. Baina kontua da

gure salaketak ez direla komunikabideetan azaltzen, ez dituzte argitaratzen, hemen ezer gertatuko ez balitz bezala, sufrimenduaren alde bakarra erakusten dute, eta senideen artean kasu oso oso dramatikoak gertatzen ari dira herri honetan. Bestalde, norberaren arazo bera daukan jendearekin egotea oso lagungarria da. Bakoitzak izan ditzake lagunak, egoera nolabait uler dezaketena, baina norberari tokatu arte ez da jakiten benetan zer den egoera latz ete mingarri hau. m

UKronikak

Plentzia-Ternua

—Unai Elorriaga—

Arratsaldeko 4:21 / Mendeak daramatzagu Ambrosiok eta biok arrantzan. Herrian bertan, Plentzian. Ambrosio jaio aurretik ere etortzen zela uste dut, kanabera asmatu aurretik. Izan ere, uste dut berak asmatu zuela kanabera.

4:57 / Nik, egia esan, ez dut ia ezer harrapatzen. Ez dut ezer harrapatzen. Ambrosiok bai. Ambrosiok denetarik harrapatzen du. Esaterako, lehengo egunean adjektibo bat harrapatu zuen. Hegala urdina eta burua grisa zeukan adjektiboak. Adjektibo arrunta zen: "motz" adjektiboa, hain zuzen ere. Nik burla egin nion apur bat, "motz" adjektiboa nahiko ridikulua delako eta ez duelako jateko balio. Arin bota zuen atzera uretara "motz" adjektiboa, nire barrea ebitatzeko igual, eta prestatu zuen kanabera eta berriro bota, beste adjektibo dekorosoago bat harrapatzeko: "lizun", "heze" edo "bistoso" adjektiboak harrapatu nahi zituen adibidez.

5:24 / Gaur ez dugu ezer harrapatu oraindik. Lehengo egunean bai. Lehengo egunean egutegi bat harrapatu zuen Ambrosiok. 2020. urteko egutegia zen. Kuriosoena da egutegian Ambrosioren dentista-egunak agertzen zirela markatuta, eta halaxe jakin genuen martxoan birritan eta apirilean behin joango zela Ambrosio dentistarengana 2020. urtean. Horraino normala zen guztia, baina pentsatzen hasi ginen Ambrosio eta biok garun bakarra bagenu bezala eta konturatu ginen laurogeita zazpi urte dauzkala Ambrosiok eta 20 urte barru 107 izango dituela eta orain bi hagin eta hortz bat gertzen bazaizkio, gutxiago geratuko zaizkiola 2020. urtean. Nerbioso jarri zen Ambrosio eta uretara bota zuen egutegia.

5:47 / Mendeak eman ditugu hemen arrantzan eta sekula ez dugu harrapatu gaur baino gutxiago. Atzo bai, ordea. Atzo harrapatu genuen bat, lodia. Ambrosiok laguntza eskatu zidan, ezin zuela altxatu-eta. Zazpi minutu eman genituen uretatik ateratzen. Bata zuridun gizon bat zen. Farmazeutikoa zela esan zigun eta botika zeukala Plentzian bertan eta, kasualidadez, likidazioan jarri dituela produktu guztiak eta merke-merke daudela, eta hara joateko gomendatu zigun efusibidade neurrigabez.

Botikara joan ginen, beraz, Ambrosio eta biok eta erosi genituen zazpiehun eta berrogeita bosna aspirina-kaxa eta hainbat supositorio. Besteak beste. Izan ere, ondo merke zegoen dena. m

Zertaz ari dira?

Egileak: Aiala Elorrieta, Amagoia Etxebarria eta Katrin Mugerza



Ze egiten dugu Belena. Etortzen da Olentzero, ipintzen da gabonetako zuhaitza. Ze ni joaten naiz nire amamaren etxera egun guztietan.
Amy, 5 urte




Eh, ba, ez naiz gogoratzen. Bai, Olentzero opariekin, zuhaitza, jendea pozik eta jaten turron eta txokolate!
Gaizka, 5 urte



Olentzero etorri behar da. 24an dira. Beroa, opariak. Ah, ze jolasten dugu eta arbolak be.
Jon, 5 urte



Zuhaitza. Olentzero eta opariak. Oporretan nago eta aita eta amarekin nago.
Lander, 5 urte



Eh, opariak, daudela zuhaitz eta inguruan dago izar bat zuhaitzaren gainean! Eta gero ere bai dago, eh, umeak eta jolasten dute. Ezer gehiago.
Garazi, 5 urte



Etortzen direla erregeak, opariekin, etortzen da Olentzero, jolasten dugu opariekin. Jartzen dugu Belen eta jartzen dugu zuhaitza.
Unai, 5 urte

AURREKOA

Askok "Lurra" erantzun bazenuten ere, aurreko zenbakiko galderaren erantzuna "Mundua" zen. Miren Zarandona izan zen zuzeneko erantzuna asmatu zuen bakarra eta hortaz, bi lagunentzako afaria berak irabazi du.

ZERTAZ ARI DIREN baldin badakizu, bidali zure erantzuna UK aldizkarira: 171 posta kutxa, 48990 GETXO / Faxa: 94 491 13 37 / e-mail: aldizkaria@euskalnet.net Asmatzen duzuenon artean bi pertsonentzako afaria zozketatuko dugu

—UKri lagundu nahi badiozu, nahi duzun diru kopurua zuzenean sartu gure kontu zenbakian—

diru sarrean idatzi zure izena



LEHEN

Iraganez doa denbora* beti

ERROMOKO LEHENGO BARRERAK



ORAIN

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez



Ezkerrean dituzue, UK aldizkarikook eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak antolatuta genuen bigarren kata ikastaroan parte hartu duten ikasleak. Orain dela urte bi ardoen gaineko ikastaroa prestatu bagenuen ere, oraingoan, kaba eta txanpanen txanda izan da. Itsaso Arana someliere adituak edari burbuilatsu hauen hainbat sekretu kontatu zien jakinminez eta batez ere, egarri handiz izena eman zuten lagunei. Argazkiak ondo islatzen duen moduan, pozik hartu zituzten

EREAGA

Bidaiak
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88
GETXO



basurto
algorta S.L.
altzariak

T: 4607162 - 4604244
telletxe 15, algorta

GAVRKO



GIZONENTZA-
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Egun-kariak

prentsa eta
aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34



1980 Kimetz abesbatza Gales-en

B. E.

Luke zuzendari trebeak, Marisabel eta Miren laguntzaileekin, zortzi urtez adorea eta pazientzia izan zuten Allgortako Ikastolako "Kimetz" abesbatza berean mantentzeko. Eta abesbatzako kideek be bazuten meritua, izan ere, eskolak amaitu ondoren eta astero arratsalde bitan, entsaioetara joaten ziren. 1980ko udan, Langollen (Gales) Nazioarteko Txapelketara aurkeztu zen Kimetz Abesbatza. Argazkian 20 lagun baino azaltzen ez badira ere, korua 60 lagunek osatzen zuten.

AZALTZEN DIRENAK

Zurunik: Luke Altuna (zuzendaria), Marisabel Igual (laguntzailea), Miren Fresnedo (laguntzailea), Maria Colino, Aintzina Enbeita, Rosi Onaindia, Itziar Onaindia, Itziar Deusto, Miren Gorrotxategi, Iratxe Miñaur, Izaskun Fernandez, Josune Barrenetxea, Mari Tere Barrutia, Izaskun Salsidua, Deusto, Itziar Aio, Gloria Totorikaguena Egurrola, Arantza Arrutia.

Makurturik: Mirentxu Moral, Natalia Arzubia, Elena Franco, Goiuri Aio, Izaskun Mentxaka, Olatz Escudero, Ainhoa Aurre, Idoia Onaindia, Izaskun Obieta.



MUNGGIA

oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076
ALGORTA



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

Bittor Egurrola... ez dok amaitu!

Lagunen artean aurkeztu zuen Bittorrek bere kanten bilduma

Ezin ukatu azaroaren 26 Algortako ikastolan bildu zen jende aldrak Bittor Egurrola-ren diskoaren aurkezpena baino zeozer gehixeago dastatu zuela. Gogoan izan bestela euskara elkarteko Bego Fernandez-ek maisutasunez (andereñotasunez esan behar al da?) eskaini zizkigun pintxo erako gutziak. Andereño eta maisu hitzak ezin hobeto datoz ordukoa deskribatzeko, ez bakarrik Bittorrek izenburu horrekin berarekin kantatu zuen kanta dela eta baizik eta, egian esan behar, klarion usaina zeriolako saioari. Usaina esan dut eta ez kiratsa, ez bedi inor mindu, arren. Olanga, Jose Ramon Peperra, Konra, Gotzone, Joseba... han izan ziren. Horiek ikastolako irakasle historikoak dira baina unibertsitateko Fernando Mijangos, Gorka Orueta, Josu Zubiaur... ere han ikusi genituen. Bestelako irakasle zenbait ere azaldu ziran: Marga Sangroniz, Marisol Trebiño, Paul Benito del Valle, Amaia Petralanda... atera kontuak. Edozein ikasle zurbil uzteko moduko kontua.

Saioa laburra bezain kuttuna izan zen. Aurkezle lanak Josu Arroio-k egin zituen eta ondoren Jose Felix Azurmendi-k hartu zuen mikroa. Lau hilabeteren ostean Zuberoko haran sakon batetik etorri berriak baleude bezala, Josu Landeta eta Joseba Santxo-k eman zioten hasiera kantatze saioari, a capela eta bi ahotsetara.

Aspaldi ezagutzen dugunok beti jakin izan dugu Bittor kantari izandakoa dela, baina ezin izan dugu inoiz espazio-denbora dimentsioetan oso zehatz kokatu, are gutxiago orain 30 urte ume koxkorrek baino ez ginenok, eta garai haietako errealitate sozio-politikoak bizibizian pairatu edo gozatu ez genuenok. Ez gaitzen, baina, Bittorren ateporalitate eta adimensionalitatearen gainean ika-mikan sartu. Bittor, den modukoa da, eta horrela agertu zen oholta gainean.


Hiru musikari ekarri zituen berarekin: Natxo Libano eta Xabier Paia pianojoleak, eta Alberto Zeballos kitarra jolea eta hiru izan ziren, baita, eskaini zizkigun kantak: Umezurtza, Andereño eta Unibertsalak.

Bittorrek kanta bakoitzari hitzaurre gisako sarrera bana erantsi zion letren bere benetako dimentsiora hurbildu ahal izateko, ez baita erraza orduko mezuak egun neurri egokian ulertzea. Bere azalpenak han bildu ginen ehun bat lagunek entzun ahal izan genituen.

Entzuleen artean, han izan ziren, Matxalen Amas, Bizarra Lepoan-eko kuadrilla osoa Bertso buru zela, Euskaltzaindiko Rikardo Badiola, AEK-ko Igor Elordui, ELA-ko Jose Elorrieta, Udaletxeko zinegotzi Koldo



Jende asko hurbildu zen diskoaren aurkezpena. Eskuinean, Bittor disko baten eskaintza egiten.



Iturbe, Gurtubai senar-emazteak, Mertxe Zubiaur, Luis Berasategi eta bere emazte Gentzane Aspuru, Josu Lartategi, Iratxe Agirre, Laura Mintegi eta bere senar Antton Azkargorta, Alberto de Abajo Soro, Unai Elorriaga getxoxtar idazle gaztea eta neska-mutil talde bat, besteak beste. En fin, lagunarteko zita izan zen hura.

Revival kutsua hartu genion ekitaldiari orain 30 bat urte gure herriak bizi izan zuen errealitate gordin hura gogora ekarri asmoz. Bat baino gehiago urduri samar zebilen susmoa ere nabaria zen giroan, akaso Garzón epaileren aginduz Guardia Zibila une batetik bestera arrapaladan sartuko ote zen beldurrez... Guatekea baino ez zen falta izan han. m

Testua: "Loretto" / Argazkiak: Mikel Martínez



Inportaziozko zerbezarik onenak

Terraza zabala



basarte'na

Tel. 946 76 11 28
URDULIZ

Barrukoa

Taberna Telletxe 5



ALGORTA

SANTANA KIOSKOA

Prensa eta aldizkariak

Santana kalea, Amaiarekin bat

BEROGAILU ETA ITUR-



T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15 48990

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-

Prensa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixxerriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



Bilbo Hiria Irratiak zortzi orduko emanaldia egiten du egunero euskaraz (107.00 FM)


Kafe Antzokiak bost

Soka ez da eten" leloa aukeratu duten antolatzaileek efemeride hau ospatzeko, euskara transmisioaren soka eten ez dela adierazi nahi dute. Izan ere, euskara da bultzatzaileen lanaren ardatza eta helburua, baina ez dute euskararen aldarri hutsa egin nahi, euskara bizitzan txertatu nahi izan dute eta horretarako, euskaraz bizitzeko aukerak ematen tematu dira.

Honezker bost urte ditu Antzokiak, atzean ehundaka kontzertu, ekitaldi eta emankizun. Zalantza barik euskaldunen topagune eta euskal kulturaren erreferentzia bihurtu da. Aldi berean -ez dira zilborrari begira bizi- Antzokian beste hainbat kultura adierazpenek be, plazaratzeko, txokoa aurkitu dute.

Baina Antzokia ez da bakarrik ekitaldietarako lekua, proiektu zabalago baten zati da. Zenbat Gara elkarteak da egitasmoo honen bultzatzailea eta bere ekimenen artean ezagunena Kafe Antzokia bada ere, hor daude euskaltegia, Zenbat Gara izeneko aldizkaria, Algara Konpartsa, antolatzen dituzten ikastaroak, Bilbo Hiria Irratia... Gainera, aurrera begira badituzte hainbat asmo gogoan: haur eta gazteentzako eskaintza zabaldu, telebista sortu...

Arrakastaren sekretua? "Egiten duguna maite dugu". Hori esan digu, behintzat, Jose Angel Irigarai Zenbat Gara-ko kideak. m



Goian, Jose Angel Irigarai Behean, Antzokia jateke bihurtzen da egunero

"Egizu Getxo euskaldun" egitasmoa abian

Herrian euskaraz bizitzeko hainbat aukera



Egizu Getxo euskaldun programa hau abian jartzeko hitzarmena sinatu berri dute Getxoko Udalak, herriko lau euskaltegiek (Jose Antonio Agirre, AEK-ko Ganbara eta Lauaxeta eta Udal Euskaltegia) eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak. Programa honek helburu nagusi bi ditu: alde batetik, euskara ikasten ari direnak eskal komunitatean txertatzea, eta bestetik, euskaldunen komunitatea bera osatu eta sendotzea. Helburu hauek lortzeko hiru faktoretan eragin nahi dute antolatzaileek: motibazioan, hizkuntzaren ezagutzan eta batez ere, erabileran. Hori lortzeko ekaina arteko programazio berezia prestatu dute. Era guztietako ikastaroak egongo dira: argazkigintza, sexualitatea, dantza, graffitiak, sukaldaritza edota interneten ibiltzeko; irteera bi egingo dira (sagardotegi batetara eta Zugarramurdira); Munduko berri izenpean, bidai kontaketak egingo dira diaporamen bidez; Kultur Errotak berriz, kultur emanaldiak, ekarriko dizkigu, Getxotik pasatuko dira, Anje Duhalde, Xabier Montoia, Amaia Zubiria...; eta nola ez, Berbalagunak segituko du. Berbalagunak, talde txikitik euskara praktikan jartzeko aukera eskaintzen die ikasleei. Ez daukazu euskaraz ez egiteko aitzakiarik!

INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO

J. A. Euskaltegia. T: 94 460 66 71



Aurten be atek zabaldu ditu Getxolandiak Getxoko Kultur Etxearen eskutik. Umeek zein gazteek badaukate Gabonetako oporrak ondo igarotzeko lekurik. Aurten esparru bi izango ditu Getxolandiak: Areetako geltoki plazan haurrentzako esparrua kokatu da, Erromoko Santa Eugenia plazan berriz, gazteei zuzendutakoa. Zaldiko-maldikoak, dragoiak, sclextric-ak, sorgin trenak, txikipark, ohe elastikoak eta txoke-autoak izango dira besteak beste hara hurbiltzen direnek topatuko dituzten atrakzioak. Sarrerak 300 pta. kostatzen da haurren aldean eta 400 gazteenean. Badabil be, Getxolandiainoko tren zerbitzu berezia, trenbiderik gabekoa. Urtarrilaren 5a arte zabalik egongo da Getxolandi, goizetan, hamaiketarik ordu biak arte, eta arratsaldetan, bostetatik gaueko bederatzik arte.

GUTUNAK

AEK AURRERA, EUSKARA AURRERA

Garzon epaileak azken autoan egindako salaketan inguruan, AEK elkarteak honako hau jakinarazi nahi dio euskal gizarteari:

1. AEK-k ez dauka inolako loturarik ez ETArekin, ez eta euskararen irakaskuntza eta promozioarekin zerikusirik ez duten bestelako erakundeekin ere.
2. Autoan agertzen diren 19 lagunen artean batzuk AEK-ko kideak dira, beste batzuk AEK-ko kideak izan dira eta orain ez daude, eta zenbaitek ez du inoiz inolako harremanik izan AEKrekin.
3. AEKren egiteko nagusia EUSKARA irakatsi eta gure hizkuntzaren zabalkundea sustatzea besterik ez da. Horrez gain, bestelako egitasmoak abian jarri ditugunean, xede horiei begira edo gure ohiko jardueran aurrera egiteko baliabide ekonomikoak eskuratzearren bideratu ditugu.
4. ETA erakundearekin zerikusirik ez dugula argi dago, eta epaileak egindako bestelako salaketan gainean, honako puntuak argitu nahi ditugu:

-AEK-k ez du inolako langilerik izan, harik eta Eusko Jaurlaritzarekin AEK-ko kideen laborantzio prozesua bideratzeko hitzarmena izenpetu zen arte. Langilerik egon ez

bada, nekez egin dakiok iruzurrik Gizarte Segurantzari.

-BEZari dagokionez, nola egongo da ordaindu barik, bada, irakaskuntzan ari den erakunde batek ordaindu behar ez duen dirua? (irakaskuntzari loturik dauden jarduerak ez dute, legez, BEZik sortzen).

Hau guztia kontuan hartuta, inoiz baino ozenago aldarrikatu nahi dugu gure errugabetasuna. Izan ere gure delitu bakarra euskaltzale izatea baita, hori inoiz delitua izan bada. Azkenik, zera eskatu nahi dizuegu, orain arte bezala segi dezazuen euskal kultura eta gure hizkuntzaren defentsan. Bakoitzak egin dezakeen ekarpena eginez, euskara ikasiz, euskara erabiliz, euskaraz bizi ahal izateko bideak zabalduz...

Guk gure aldetik, ahal dugun guztia eta gehiago egingo dugu eraso politiko-judizial honetatik indartsuago ateratzeko eta gure eguneroko lanean, euskara irakatsi eta sustatzen, segitzeko.


ZURE ELKARTASUNA: elkartasuna@aeknet.net

LAMIA EUSKALTEGIA, LEIOA

AKETZA SAN-

Berangokoa da eta 25 urte ditu. Itsasoa eta, oro har, natura da gehien gustazen zaiona. Ingurugiro ikasketak iaz amaitu zituen. Telebista saio batean agertu izanak ospetsu bihurtu du egun batetik bestera.

Testua: Jokin Aspuru
Argazkia: Aitor Galbarriartu



BERBETan

Guztiok ezagutzen dugu zein den telebistaren eragina; Aketza gazteari bizitza aldatu dio. 6.000 lagun artean aukeratu zuten Supervivientes lehiaketa saioan parte hartzeko. 48 egun eman zituen irla bakartu batean bizi irauteko norgehiago-

—Itsasoari lotua bizi izan zara, hainbat urtez sokorrista Gorrondatxe hondartzan...

—Bai, lan hori asko gustatzen zait, niretzat lujoa da; egun osoa hondartzan ematea, zeure txabolarekin, olatuak hartzeko aukera... Hondartza hori nirea dela esaten dut (barreak).

—Europako txapelketa izan zinen...

—Txikitatik hartzen ditut olatuak. Paipo modalitatea egiten dut, surfa eta bodyboard-en artekoa dena. Euskal Herriko selekzioan egon naiz eta Europako txapelketan lehenengoa izan nintzen Irlandan eta iaz, Portugalen be, lehenengoa. Nik beti gauza bera esaten dut: badago psikologoa behar duen jendea, nik surfa daukat. Uretan sartu, eta irtetea, pertsona berria naiz. Baina surfa baino, niri gehien gustatzen zaidana natura da; natura basatia, mendia, bizitza naturala. Ez zaizkit batere gustatzen seinaturiko ibilbideak, autoak...

—Zelan erabaki zenuen telebistako horrelako saio batera joatea?

—Iazkoa, nire urte sabbatikoa izan zen. Ikasten eta, ikasketak ordaintzeko, lanean nenbilen. Hori bukatu eta zeozer berezia egiteko aprobeixatu nahi nuen. Eta telebista saio hau egiteko aukera ateratu zen. Hala ere, esan behar dudana lehenengo gauza da, saio hau, Gran Hermano baino lehenago grabatu zela eta horrek esan nahi du, nik ez nuela puta idearik, izango zituen ondorioei buruz. Bigarrenik, hemen bizi den edozein mutuli, hondartza, natura gustukoa duen ni bezalako edozein gazteri, esaten badiote

bidaia bat ordainduko diotela, Panamara, irla galdu batera... ba, hori niretzat kristoren aukera zen eta itsu-itsuan joan nintzen.

—Kontaguztu esperientzia

—Hara joan ginenean, 48 egunez egon gintezkeela banekien, baina ez zitzaidan burutik pasatu ere egiten bukaera arte iristea. Niri bidaia ordaindu zidaten, irla desertu bat ezagutzeko aukera... horrekin banuen nahikoa. Olatuak zeuden inguruan eta kanpora ateratzen nintzenean, baneukan zain nire ohola hotelean bertan, nire kabura surf egiten jarraitzeko. Programa grabatzen hasi zen, eta egun osoan kamarak gainean genituen, ez nengoen gustura. Astebete pasatuta ohitu egiten da bat, besteen aurrean txiz egin; bi aste pasatu eta berdin zaizu denen aurrean eztabaidatzea; hirugarrenean, ahaztu egiten dira. Nire kezka bakarra bizirautea zen, baina ez programan lehiatzeagatik, baizik eta jakiteko naturaren kontura bakarrik zenbat iraun nezakeen. Gose nintzen, egun baten bai eta hurrengoan gehiago... eta konturatzen nintzen eusten niola, ez dela horrenbeste behar bizirik irauteko. Hasieran txarto pasatu banuen ere, bukaera aldean ni munduko gizonik zoriontsuena nintzen han. Paradisua aurkitu nuen: ez geneukan ordutegirik, araurik...

—Horrelako esperientzia batetik, zer ikasi duzu?

—Garrantzitsuena, hemen benetan behar ez ditugun gauza piloak ditugula. Bestetik, zuhurrago bihurtu naiz, baina honek ez du txarra izan behar.

Konturatu naiz ez zaiola jende guztiari konfiantza larregi eman behar, benetako lagunak ez direla hainbeste...

—Zein izan da esperientziaren alderik txarrena?

—Zalantza barik, elkarbizitza, konbidentzia. Bakarrik askoz gusturago egongo nintzen han. Topatu dut jende gaiztoa, baina bene-benetan gaiztoa. Nik horrelako jenderik ez zegola uste nuen. Hasieran, guztiak atseginak izaten saiatzen ziren baina azkenean, adibidez, bost egun jan barik egon ondoren, jendearen benetako izakera ateratzen da, hori ezin da ezkutatu. Eta gauza bat esango dizut: han egon ginen hamasei lagunetatik ez nuke bat bera ere aukeratu.

—Ospetsua zara, zelan orain?

—Egia esatea nahi baduzu, harrituta nago. Badago famatu, ezagun izateari zelan aurre egin dakien jendea, hori ez da nire kasua. Ezagutzen ez nauen jen-

dezka, ezagutuko banindu bezala. Sarritan neure buruari galdetzen diot nor ote naizen ni.

—Egingo zenuke berriro?

—Itzuli nintzenean, ikusi nuen Gran Hermano, El bus... eta nik ez daukat pertsona horien aurka ezer, baina argi daukat, ordainduta bada ere, ez naizela horrelako saio batera joango. Une jakin batean grabatu genuen saioa ez zela emitituko esan ziguten eta egia esan, ni oso pozik nengoen. Hala ere, ni ezin naiz gehiegi kexatu, azken batean, onaren papera tokatu zait saioan; beste batzuei osterara, txarrena. Txarrena tokatu izan balitzait benetan kexatuko nintzen, garrantz gainera. Pertsona horiek ez direlako hain gaiztoak eta orain, edozein lekutara doazela, jendeak seinatzen ditu: begira, hortxe doa Supervivientes-eko kabroia!

—Telebistak ezagun bihurtu zaitu. TBrik ikusten duzu?

—Gutxi, oso gutxi. Pentsa ezazu, ez dut programa bera ere ikusi. Grabatuak ditut, amak lan hori hartu duelako. Nagusia naizenean, neure seme-alabei, beharbada erakutsiko diet (barreak).

—Zer hiru gauza eramango zenituzke irla bakartu batera?

—Lehenengoa, konfiantza handiko pertsona bat, nirekin betiko egon daitekeena, maite nauena. Gero, elikagaiak lortzeko arpoi bat. Eta hirugarrena... atsedena hartzeko koltxoneta eder bat, ze harea gainean egunero lo egitea ez da batere eroso.

—Eta orain zer egingo duzu?

—Orain, ezer ez. Egunean eguneko egin nahi dut, ahalik eta zoriontsuena izan, une oro; carpe diem. Ez dut bizitza programatu nahi. Ez dut hiru hilabetetik gorako kontraturik sinatuko... ez dut ordutegirik nahi, lotzen nauen ezer ez dut nahi. Gerokoak gero. Bikote laguna daukanean... ba, beharbada, pentsamoldea aldatu behar du. Hemen geratu eta

“Kaleko jendeak ezagutzen zaituela uste du eta hori mingarria da”

deak agurtzen nau... Nik ezin dut hori jasan. Eta zer egin nuen? Ba, ihes egin, Australian hilabete eman dut. Kontua da orain Gabonak direla-eta, aita eta amarekin egoteko, etxera itzuli behar izan naizela. Hala ere, leku publikoetatik urrun egoten saiatzen naiz. Ospetsua izatea, 24 orduko lana da eta ez da trukean gauza handirik jasotzen. Jendeak ezagutzen zaituela uste du eta hori mingarria da, norbera zeozer publiko dela ematen du. Orain, adibidez, begiratu behar dut tabernatara; horregatik, ez naiz apenas ateratzen, hau pasatu arte behintzat... Ezin naiz lagun batekin lasai egon, edonor datorkit zelan nagoen gal-

Juan Luis Zabala

“Nobela honen bidez hiltzeko modu goxo bat bilatzen saiatu naiz”

Arean despistatua dela onartzen du Juan Luis Zabalak, baina idazle zintzotzat du bere burua. Agur Euzkadi izan da Azkoitiko idazleak argitara eman duen azken nobela, bi urteko eszedentzia batean idatzi zuena. Izan ere, Euskaldunon Egunkaria-n lan egiten du Zabalak, eta kazetaritzak idazteko denbora gutxi uzten dio.

Testua: Esti Ezkerra / Argazkia: Mikel Martinez

—Poesia, ipuina, nobela, ia genero guztiak landu dituzu. Zein duzu gustukoena?

—Bai idazteko bai irakurtzeko, atseginena zaidana eta beteena iruditzen zaidana, nobela da. Ipuinak eta poemak ere idatzi izan ditut, baina horiek gehiago izaten dira unean-uneko zerbait. Ez daukate nobelaren sakontasuna edo nobelak ematen dizun mundu berri batean sartzeko aukera hori.

—Agur Euzkadi-ko protagonista zure alter egoa dela esan daiteke. Nahita bilatu duzu hori?

—Narrazio gehienetan, nahiz eta kontrakoa egiten saiatu, narratzailea nire antzekoa izaten da. Kasu honetan, ez dut inolako problemarik izan nire antzekoa izan zedin. Gainera, horrek erraztasuna ematen du. Protagonista Egunkariko kazetaria da, eta, esperientzia hori gertuko zaidanez, ez daukat dokumentatu beharrik.

—Ez al dizu beldurrik ematen irakurleek zu nobelaren protagonistarekin identifikatzea?

—Bai, baina hori beti dagoen arriskua da. Jendeak zer pentsatuko duen ezin da kontrolatu; hortaz, pentsa dezatela nahi dutena. Nobela bat da eta bakoitzak modu batera hartuko du.

—Galdu Arte-k izan zuen oihartzuna dela-eta, hainbatek haren kontinuuma izango zela pentsatuko zuten...

—Galdu arte idaztera bultzatu ninduen indarra liburu horrekin joan zen. Nire liburu guztiak bata bestetik diferenteak dira. Ez naiz, behintzat, liburuak beti modu berean egiten dituztenetakoa. Dena den, niretzat, behintzat, badago lotura bat bi liburuen artean. Galdu arte-n nondik natorren kontatu nuen, eta nolabait gaur egun naizena neurri handi batean urte haietan sortu zen. Liburu hau, berriz, non nagoen azaltzeko



“Nire liburu guztiak bata bestetik diferenteak dira. Ez naiz, behintzat, liburuak beti modu berean egiten dituztenetakoa”

ahalegin bat da.

—Nobelan zehar, nahiko deigarria da heriotzaren presentzia.

—Urteak aurrera doaz eta gaztea naizela uste dut, baina gaztetasuna ere aldatu egiten da. Heriotzaren agerpen horren atzean bi kontu daude. Alde batetik, denok dakigu hil egin behar dugula eta horren inguruko kezka bat badago liburuan. Erljioak beti saiatzen dira hiltzeko modu goxo bat bilatzen. Ni ez naiz fededuna, eta, beraz, nobelaren bidez hiltzeko modu goxo bat bilatzen saiatu naiz. Kristautasunak zerua asmatu zuen bezala nik Lauaxetarekin bidaia eterno bat asmatu dut. Baina badago beste heriotza bat. Galdu arte amaitu nuenean, gaztetasunaren parte bat bukatuta zegoela sentitu

nuen. Eta, neurri batean, hori ere bada hiltze modu bat. Julen Lamarain, nire alter ego hori ere etsita dago, ilusioa zeukan kazetaritzarekin baina jada ilusio hori galdu egin du. Badauka etsipen bat, neurri handi batean neurea ere badena, nahiz eta pertsonaia-rena handituagoa dagoen.

—Hainbat idazle zurekin haserretuta ibiliko dira, liburuan egiten diezun kritika dela-eta.

—Ausartu egin naiz nolabaiteko kritika egiten idazleei eta sortzaileei. Baina autokritikatik ere asko du horrek, eta nolabait horretaz barre egiteko baimena ematen didala uste dut.

—Zenbait liburutatik hartutako pasarteak uztartu dituzu nobelan. Plagioa pil-pilean

dagoen gaia izanik...

—Plagioak, kopia hutsa denean, agian ez du zentzu handirik, baina badaude nolabaiteko sormenak diren kopiak. Harrigarria egin zait Ana Rosa Quintanaren beltz edo dena delako horrek hiru liburutatik kopiatu izana. Ez dut liburu irakurri, baina argitaratu badute eta jendeak irakurri badu, pentsatzekoa da ondo irakurtzen dela. Eta hiru liburutatik kopiatutakoa uztartze-ari ez deritzot batere erraza. Nire kasuan ez dut horrelakorik egin, baina inolako beldurrik gabe sartu ditut gustukoak nituen pasarteak. Nolabaiteko keinuak dira.

—Eta alderantziz balitz?

—Ez dut uste gertatuko denik, baina gertatzen kotan, osorik kopiatu eta bere izenarekin atera... segun eta zein den haserretuko nintzateke. Baina puska batzuk hartu eta horiekin jolastuko balu, zilegi iruditzen zait eta polita ere izan daiteke. Eta zaila gainera!

—Idazle bezala, zelan definituko zenuke zeure burua?

—Zintzoa. Hau da, artifizio gutxikoa. Badakit literatura artifizioa eta engainu bat dela. Nire kasuan, barruan ez bada zerbait mugitzen, ez naiz idazteko gai. Zintzoa alde horretatik, benetakoa edo barnekoia naizela esango nuke.

—Inspirazioan sinesten al duzu?

—Oso garrantzitsua da teknikaren jabe izatea. Baina, hala ere, burua bakarrik ari bada lanean, sortzen den literatura agian nik ez nuke gustura irakurriko. Liburu batzuetan antzeman egiten da idazleak oso barrutik idatzi izan duela, eta horiek dira niri gehien iristen zaizkidanak. Ez dakit inspirazioa den hitza, baina zerbait egon da hor. Inspirazioan sinetsi? Neurri batean bai, joera nagusiari kontra egiteko besterik ez bada ere.

—Maisutzat duzun idazleren bat?

—Banituen eredu batzuk, Peter Handke etortzen zait beti burura eta gero pegatina bat bezala jartzen didate. Edo Pessoa, Kafka garai batean. Orain ez daukat eredu zehatzik, nik uste dut egoten dela garai bat irakurtzen dituzunak barruraino sartzen zaizkizuna, eta nolabait eragin handikoak izaten direnak. Gero, norkberak ikusten du bere bidea, eta zailagoa da irakurtzen dituen liburuetan lehen sentitu izandako zirrarara bere sentitzea. m

KURKUDI LIBURU DENA
Euskarazko irakurgai guztiak!
Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

LABURlabor



Nobela bat argitaratuko du Unai Elorriaga idazle algortarrak

Martxoa, apirila aldera ikusiko du argia Unai Elorriagaren (Algorta, 1972) lehenengo nobelak. Unai, izultzailea da lanbidez eta honezker bere itzulpen lan bat argitaratu du Elkarlanean argitaletxeak gazteentzako Branka sailean, Agusti Fernandez Paz idazle galegoaren “Nogeira doktoarearen laborategia”. Unaiak Paul Auster idazle amerikarraren hiru antzerki lan be euskaratuak ditu. Esan bezala, laster argitaratuko da aldizkari honetako kolaboratzailearen fikziozko lehenengo lana. Jakin ahal izan dugunez, zahartzaro eta gaztaroaren arteko harremanak dira nobela honen gaia. Lana Xabier Mendiguren editorearen eskuetan dago orain eta oraindik ez dauka titulu definitiborik. Urte eta erdi eman du Unaiak lan hau idazten. Zorte on!

ARTEeskola

Vicente Larrea

Eskultoreen familia batean jaioa da artista hau. Bere aitita ere, Vicente Larrea deitzen zena, eskultore izan zen. Artista hau Serafin Basterraren bazkidea zen eta sasoi hartan hainbat enkargu jaso zituzten; adibidez, Bilboko Udaletxean dauden La ley eta La justicia eskulturak Serafinen lantegian eginak dira.

Vicente gaztea Meategi Eskolan hasi zen ikasken, gero ikasketa hauek alde batera utzi zituen eta Arte eta Lanbideetako eskolan sartu zen. Frantziara bidaiatu zuen, eta han Agustín Rodin-en dizipulu batekin, Raymond Dubois izenekoa, lan egin ahal izan zuen. Garai hartan, 50eko hamarkadan, imajineria erlijiosirako joera zuen Vicentek: Berniniren kopia bat egin zuen; geroago 60ko hamarkadan, bere lehenengo lanak argizari galduan iragazita egin zituen. Eta hauek izango dira, kutsu erlijiosoa eduki arren, bere ondorengo lan egiteko era finkatuko dutenak. Poliki-poliki hizkera artistikoa aldatuko du, gai mundutarrak nabarmentzen hasteko: “Sardineras”, “Kirikino”... Vicente Larreak, alor publikoan egin dituen lanak leku askotan ikus daitezke, esaterako, Galdakao eta Amorebieta tartean zegoen “Oilarra” ezaguna, Madrilen Castellanan bertan, edo hain urrun joan barik, Algortako metro plazan. Ezkerreko argazkiko eskultura, “Formas concéntricas I”, eskultura 1968tik ikusgai dago Bilboko Arte Ederretako Muscoan. • ALBERTO ZEBALLOS






Argazkiak: Getxo

Egilea: Pedro Zarrabeitia—.



1969a aldera ekin zion fotografi jar-
duerari Vizcaya Club Cine Foto talde-
ko kide modura eta 1975an IRUDI
TALDEA sortu zuen Getxoko argazki-
lari batzuekin. Ezaguna da batez ere
argazkigintza artistikoaren arloan, kolo-
rearen tekniketari egin duen ekarpena dela eta. Euskal
Herriko areto askotan, Espainiako hiriburu nagusie-
tan eta Montrealen, Chicagon, Denverren eta Renon
(EEBB) egin ditu erakusketak. Estatu eta nazioarte
mailako sari ugari jaso ditu. Bere obrak, besteak
beste, ondoko museo eta erakundeetan daude: Bilbo
Arte Ederren Museoa, Euskal Museo Historikoa,
Donostiako San Telmo Museoa, Zarautzeko
Photomuseum-ean...

Algortako Bertsolari Eskola 20 urteko historia



Goian, Xabier Amuriza eta Trino Azkoitia; behean, Andoni Iriondo



Aurten hogei urte bete ditu Algortako Bertsolari Eskolak. Abenduaren 16an ekitaldi ederra egin zuten Getxo Antzokian urteurrena behar den moduan ospatzeko.

Joseba Santxori, bertso eskolako kide eta bultzatzaileari, ibilbide luze honen laburpena eskatu genion.



Testua: Joseba Santxo

AURRETIKOAK

Gurea bezalako bertso eskolen aitzindari eta aitagoia Xabier Amuriza izan dena ez dago inongo dudarik. Bertsoaren ikasi egin daitekeelako teoria berari zor diogu. Bilbon hasi zen abade ohi iraultzaile hau bertso eskolen oinarriak beren beregi lantzen, eta hango oinarrien gainean eraikita daude Santutxuko eta Algortako bertso eskolak, Amurizaren inguruan ibili ziren bertsolari eta bertsozaleen ekimenez.

20 URTEKO IBILBIDEA 6 GALDERAREN INGURUAN

20 urteko gizakumeari gaztea esaten zaio. 20 urteko txakurra, berriz, zaharra. Eta 20 urteko kultur elkarteri? Ondo baderitsozue, zaharberriua deituko diogu. Izan ere, aurton 20 urte betezen dituen gure bertso eskolaren barruan badira hasiera-hasieratik ibilitakoak, zorionez, bai eta atzo goizean sartutakoak ere, zorihobez.

1) Galdera: Zer behar da bertso eskola bat sortzeko? Gauza bakarra: bertso eskola bat sortzeko gogoia.

Halako gogoia sortu ei zizaion Andoni Iriondo mendarotzaren getxotartuari 1980. urtearen bueltan, Bilboko erakustazokan AEK-k euskararen alde antolatutako jaialdian, Trino Azkoitia izeneko bertsozale azkoitiar getxotartuaren berri eman ziotenean.

- Hi, Andoni, hortik bizardun

bat zebilek hire bila. Getxon

bizi dek eta ba omen zekik bertsoan.

- Joño, ezagutu behar diat, ba,

fenomeno hori!

-Hi Trino al haiz?

-Bai motel. Eta hi nor haiz, ba!

-Andoni nauk ni, eta entzun diat badakiala bertsoan.

-Puntua jarri ezker, derrenpen-

tean hasiko nauk kantuan!

-Sortuko al diagu Getxon bertso eskola...

-Ezin asmo eder hori baztertu inola

ni konforme egonda

ta hi prest hagola



Haibat lagun pasatu dira bertsolari eskolatik urte hauetan. Baina bertsoan irakasteaz gain makina bat saio ere antolatutako eskolak.

hazia erin dezagun haz dedin arbola.

Transkribaketa nobelatu honi garrantzi handiegirik eman barik, errepara diezaiozun hazi hartatik sortzen hasi zen arbolaria. Lehenbiziko eskolak Algortako Zabala eskolatan izan ziren. Ahoz ahoko sistema zaharrak nahikoa ondo funtzionatu zuten Algorta inguruan bizi edo ibiltzen ziren bertsozaleak inguru hartara batzen hasiteko. Martitzena izaten zen eskola eguna (tradizio honi tinko eutsi diogu 20 urtean zehar, eta ez gaude amore emateko prest) eta Zabala eskolako ikasgela bat izaten zen eszenatokia. Azalpentoak, bertsoak, sasibertoak, barretxoak, kontutxoak, kantutxoak eta lantzean behineko jan-edan apurtxoak neke handirik gabe tartekatzen ziren era berezkoan sortu zen hasierako bertso eskola hartan. Andoni Iriondo, Trino Azkoitia, Karlos Ibarzabal, Santi

Jaka, Bingen Zupiria... Ohartuko zineten, honezker, hasierako talde hartan bazela izen entzutetsurik. Inguruko herri bertsolariak ere bazebilen inguruan, esaterako, Sopelako Eusebio Roura "Eusebito". Eusebito pozarren hurreratzen zen lagunarte hartara eta, esaten duten legez, oso gustuko zuen buruz buruko bertso lehia, beti irabazle iriteten ez bazen ere. Orduko eskolek segida izaten zuten Algortako taberna karismatikoko batean: Isidro herrikoien tabernan, hain zuzen ere. Zoritxarrez orain dela gutxi joan zaigu 20 urteotan zehar bertsolari eta bertsozaleen aterpe izan den tabernaren ardura. Bihoakio hemendik gure agurririk sentikorrena.

2) Galdera: Zer behar da hain polito hasitako bidea zabaldu eta indartzeko? Aldeko haizea eta haize horri eusteko moduko oihala.

Haizeak alde jotzen zuten:



euskararen estima eta erabilpena gorantz zihoazen, AEK-k eta gaueskolek egundoko lana egin zuten euskaraz bustitzera zetozen guztien egarria asetzen. Eta bertso eskola zer? Bertso eskola ez zegoen giro eder hartatik aparte. Jende berri mordo hurbildu zen San Nikolas ikastolara, hara aldatua baitzen Zabala eskolan bertsoa lantzen hasi zen taldea. Egoitza aldatze horretan asko lagundu zuen gure artetik joana den Xabier Agirregomezkorta San Nikolas ikastolako diruzainak, bai lokala lortzeko bideak errazten, bai eta bertsolaritzarekin zerikusia zuen ororekin interesa agertuz ere. Harentzat ere gure agurrik eta anaikorrena. Irakasle bat baino gehiago behar izan zen ikasle uholdeari erantzuna emateko. Orduan Trino Azkoitiak hasiberriak eskolatzeari ekin zion, eta Karlos Ibarzabal mungiarra lehendik ibilitakoak trebatzen aritu zen. Azpimarratzekoa dugu garai hartan neskak nagusi zirela taldean. Gainera, orduko taldea oso dinamikoa zen. Eskolak eman eta hartu ez ezik, laster kaleratzen ziren orduko eskolakideak edozein ekitalditan parte hartzeko: kultur ekitaldietan, omenaldietan, kalejiretan...

3) Galdera: Zer behar da eskola indartsu bati eusteko inguruak laguntzen ez duenean? Ahal den moduan eutsi eta sasoi hobeen zain geratu.

Kaleko giroak behera egin zuen. Lehengo euskaltzaleen konpromiso beroa nahikoa epeldu zen orduan. Sasoi hartan, 1985ean gutxi gora behera, Algortako AEKko Lauaxeta euskaltegiko zenbait ikasle gertatu ziren euskarri eta katebegi. Ikasleen kopurua ikaragarri murriztu zen, baina lagunarteko giroa zegoen bertso taldean. Hurrengo urtean, 1996an alegia, ate asko zabalduko zituen bidea jorratzen hasi ziren eskolako zenbait lagun: Joseba Santxo, Iñaki Benito del Valle, Josu Landeta... Ikastetxeetako erantzuna parebakoa izan zen. Egia esan behar bada, lur hura Jon Lopategi Muxikako bertsolari handiak ongarrirituta zegoen lehendik ere, eta eskolakideok ureztaturiko landareak laster hazi ziren lur emankor hartan. Arbolaren adarrak etorkizunerantz luzatzen hasi ziren.

4) Galdera: Zer egin behar da zuzentzen hasi den egoera oker bat erabat zuzentzeko? Zuzentzen jarraitu.



Bertsozaleetara hedatzea izan da eskolaren beste helburuetako bat



Ikastetxeetako pauso garrantzitsua izan zen, baina hortik gorakorik ere behar zen, eskolak bere bihar-etzia ziurtatuko bazuen. Orduan, hainbat zeharbidetako zabaldu ziren eskolaren inguruan: ikastetxeetan eskolak eman, bertso ekitaldietan parte hartu, bertso ekitaldiak antolatu: saioak, lehiaketak, jaialdiak..., irratsaioak egin, beste talde batzuekin koordinatu, erakundeekiko harremanak estutu, etab. Hori guztiori taldearen barruko giroa hoztu barik. Orduetik bertso eskola honen jarduna asko zabaldu da, eta bertsolari zein bertsozale gutxi egongo dira, Algortako Bertsolari Eskolaren entzuterik ez dutenak. Gure eskualdean bertsolari asko ibili bada ere, badira batzuk sarriarri ibili direnak: Xabier Arriaga "Txiplas", Juan Mari Areatio, Mikel Urdangarin...

5) Galdera: Zer egin behar da aurretik egindako lan guztia alpe-


rikakoa izan ez dadin? Egitura sendoz hornitu.

Egitura sendoaren ideia eskolakideen buruetan zebilen aspalditik, baina 1995. Urtera arte ez zen gauzatuko. Urte horretatik aurrera, ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA "ALBE" legezko elkarte dugu. Handik gutxira, irudiaren ardura sortu zen. Halako elkarte sendo bati itxura eman behar zitzaion, eta horrezaz Zuriñe Asteasu Gasteizko diseinatzailerak arduratu zen. Bere eskutik sortu zen, beraz, 16ko ekitaldi nagusian ikur eta sari bihurtuko dugun logoa: "Ahoi".

6) Galdera: Zer egin behar da orain dela 20 urte ibili zirenek ikusteko zein sendo dagoen egungo eskola, eta orain dabilzanek ikusteko zenbat la egin den 20 urtean zehar? XX. urteurrena ospatu.

Eta horixe da, hain zuzen ere, egiten ari garena Algortako Bertsolari Eskolako kideok. Eta irrikitan gaude gure ekitaldie-

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

CALENDOS RIKI

UMEAK GAZTEAK

Kale Nagusia 30 - T: 4645543

AREETA

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

TORRENE 13
48990 ALGORTA
TF. 4911882

Bodeguilla

Butron

gurean euskaraz!

Bidebitarte 5

ALGORTA

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
TF: 460 90 31
48990 ALGORTA

ENEKO

BAR

uk

merke merke
zure publizitatea

...deitu: 94491 1337

ESKOLAREN KRONOLOGIA

1980. Eskola sortu Andoni Iriondok eta Trino Azkoitiak. Eskolak Zabala eskolako ikasgeletan. Talde naturala.

1981-82. Egoitza aldatu San Nikolas ikastolara. Jende gehiago sartu.

1983-84. Eskolaren goraldia. Ikasle asko, gehienak neskak. Hiru talde irakasle banarekin. Euskara osasun onean.

1985. Giroak behar bezala egin zuten. Ikasle gutxiago. Euskaltegiko ikasle-irakasleei esker eutsi zelanbait.

1986. Eskolak ikastetxeetan. Algortako San Nikolas ikastolan lehenik. Gero, Sopelako Ander Deunan eta Leioako Gobelan (orain Betiko).

1990-91-92-93-94. Eskolakideen jarduna zabaldu: bertsoan ikasi eta irakatsi, plazan kantatu, ekitaldiak antolatu, txapelketetan parte hartu eta antolatu, irratsaioak egin, prentsan kolaboratu, bestelako kultur taldeekin ekitaldiak egin, erakundeekiko harremanak sendotu, herria girotu...

1995. Eskola legezko elkarte izendatu.

1996. Eskolaren logoa diseinatu eta zabaldu.

1997-98-99. Aurreko martxari eutsi eta arlo guztietan sakondu.

2000. XX. urteurrena ospatu eta etorkizunerako euskarriak sendotu.



BILBO MICRO

"1982az geroztik
soluzio informatikoak

ELKARTE ANONIMOA

Colón de Larreategui, 25 / 48001 BILBAO / Tf. 4230212 / Zerbitzu teknikoak: 4230213

Jan & edan

gaizka escudero



villabotas-ekoa

itsaso arana



jolastoki-koa

Barraskiloak

Barraskiloak ura eta gatzaz ondo garbitu behar dira. Gero, ordu betez-edo egosi behar dira azelga hosto batekin, azazko beste bat, azenario erdi eta tipula erdi batekin. Bestetik saltsa egingo dugu. Tipula, porrua, eta berakatzatxikitu behar dira eta su ahulean jarriko ditugu. Ondoren, txorizo piperrak gehituko ditugu, hauek alde aurretik ordu erdiz ur berotan eduki ondoren. Hamar bat minututan sutan eduki eta hau guztia txinotik pasatuko dugu. Lapikoan txorizoa, beikona eta pernila jarriko ditugu, gainean barraskiloak, aurretik egindako saltsa eta okela salda. Pikantea eta gatza, gure gustura. Sutan mantendu ordu laurdenez. Amaitzeko aholku bat: gozoagoak izaten dira biharamunean.

osagaiak (6 lagunentzako)

120 barraskilo • hiru tipula gorri, handiak • berakatzatxiko porru bat • 10 txorizo piper • 150 ml. okela salda • piper min bat • 100 gr. pernila, 100 gr. beikon eta 100 gr. txorizo (bizia) ondo txikitua • olio • gatza



MIKEL MARTINEZ

Kabak

Kaben iraultza Josep Raventósek eragin zuen Kataluniako Penedés eskualdean joan den mendean. Codorniu enpresa ospetsuaren jabea zen gizon hau, eta bertako mahats motekin, frantsesek txanpana egiteko metodo berbera erabiliz (antza, Don Pérignon monjeak asmatua), edari burbuilatsu eta atsegina lor zitekeela ohartu zen. Handik gutxira modan jarri zen ardo hau Bartzelonan. Marka handien itzalean, Codorniu eta gero Freixenet, beste etxe asko sortu ziren Frantziako chateaux-en antzera. Gero ika-mika sortu zen: frantsesen ustez, Kataluniako ardo hau euren produktuaren lapurreta zen eta honen ondoren, kaba izena hartu behar izan zuen ardo honek Frantziakoetatik bereizteko. Gaur egun, Katalunian ez ezik, Arabako Errioxan, Mendebian (Nafarroa) eta Aragoan ere egiten dira kabak.

JAKIN BEHAR DENA

- Beste mahats motak batzuk erabiltzen badira ere, honako mahats motekin lortzen dira kaba onak macabeo, xael, lo, parellada eta chardonay .
- Behin sotoetatik atera ondoren, edan egin behar da, ez baita gordetzeko. Hala ere, baldintza egokietan gordeta, argirik eta berorik gabe, ondo irauten du.
- Kaba batek gutxienez 9 hilabete behar ditu egiteko, eta 30 hilabetetik gorakoa denean, Erreserba handia esaten zaio.
- Edateko koparrik egokiena, txirula erako luzea eta estua da; beti behetik eutsi behar zaio.
- Botila zabaltzeko, kortxoari eskuarekin heldu, eta botila astiro biratu. Kortxoa kentzean ateratzen den soinuari korrokada esaten zaio.
- Bost eta zazpi gradu artean edatea gomendatzen bada ere, bederatzigradutan be edan daiteke.
- Kabak azukre mailaren arabera desberdintzen dira:
Brut Nature, honek ez dauka; Extra Brut, 6 gramo arte litroko; Brut, 15 gramo arte; Extra seco, 12-20 gramo; Seco, 17-35; Semisecco, 33-50 eta Dulce, 50etik gora.

Getxoko buzkentzak



Ezkerretik eskuinera, Mari Carmen, Mari Jose eta Enrique Mardaras neba-arrebak eta Agustin Rasines (Argazkiak: Mikel Martinez)

Eguzkia irten aurretik, hau da, goizeko bostak aldera, lanean hasten dira Mardarastarrak. Astero labela merezi duten 13.000tik gora buzkentza (odoloste) egiten dituzte euren lantokian, Getxon.

Buzkentzak egiteko osagaiak ezagunak dira baina batetik bestera alde handia egoten da. Gakoa hauek egiteko errezeta eta osagaien kalitatea da. Errezetari dagokionez, Mardarastarrek euren amama izan zenak erabiltzen zuen bera erabiltzen dute alde txiki batekin, lehen arrozik erabiltzen ez zelako buzkentzak egiteko. Errezeta jakina, sekretua da. Baina errezeta baino kalitatea aipatzen digute behin eta berriro Mardarastarrek. Osagai guztiak primerakoak izan behar dute eta halakoak direla ikusi dugu euren Getxoko lantegian: arroza, porruak, tipula, gantza... Horretan oso zorrotzak dira. Modu berean, zorrotzak izaten dira igaro behar dituzten kalitate kontrolak. Lantegia be, Europakoekin homologatua dute, izan ere argi esan digute: ahoan sartzen denarekin ezin da jolastu.

Astero, inguruko merkatalgune-

tan saltzen den 1.700 kilotako produktioa egiten dute eta honek esan nahi gutxi gora behera 13.000 buzkentzatik gora egiten dituztela. Ez da txantxa. Hala ere, eskaera askoz handiagoa da eta bikoitza produktuko balute den-dena salduko luketela esan digu Enriquek. Kontua da honetarako lantegia txiki geratu zaiela. Oparitu zizkiguten buzkentzak dastatu ditugu eta orduan ulertu dugu zergatik den hain handia eskaera



1- Bezeran, arroza, tipula eta porrua egosten da. 2- Biharamunean, gantza eta odolarekin batera oreo edo masa egiteko makinan sartzen. Espeziaiek gehietzen zaizkio. Oreari azken ikutua eskuz egiten zaio. 3- Orearen bututzekeko makinatik pasatzen da. 4- Buzkentzak lotzen dira. 5- Ordu betez egosten dira eta eskegi. 6- Eskuz olioan ematen zaie.



Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zaparrietan:
9:00-14:00 / 17:30-21:00
Domeka eta jai egunetan:
9:00-14:30

dena-ona
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

—UKri lagundu nahi badiozu, nahi duzun diru kopurua zuzenean sartu gure kontu zenbakian—

diru sarrean idatzi zure izena



Testua: Akitze Kamiruga
Argazkia: Mikel Martinez

Gaur eguneko ikuspegitik, asko eta askorentzat, Gabonak jai egunak dira, beste barik; fabriketan eta enpresetan balantzea egiteko garaia; gabonetako paga berezia kobratzeko ordua; neurri gabeko kontsumismoa; loteria; gizatalde desberdinekin otorduak egitea, etab. Baina gure aurretikoei, gai honi buruzko sano pentsakera desberdina zuten eta euretako batzuk badute gaur egun ere.

Dena dela badira oraindik gordeta gabonetako aspaldiaspaldiko errituen aztarnak, eta horietako bat ikusiko dugu jarraian: ogi salutadorea, hain zuzen ere. Ohitura hau Gabon-afariari lotuta dago eta Bizkaia inguruetan bizi-bizirik dirau. Afaria hasi aurretik etxeko jaunak, edo mahaiburu denak, ogia hartu, zeinatu, musu eman eta aitzoz zatitxo bat ebagiten du. Zati hori mantelaren azpian ipintzen du eta afalostean kutxan, ar-

marioan edo toki jakin baten gordetzen du. Urte batetik bestera ogi-kuzkur hau aldatu egiten da.

Dirudienek ogi hau ez da sekula urdintzen, aparteko indarra du eta helburu desberdinekin erabiltzen da; txakur amorratuak sendatzeko; etxea eta etxeokoa oinartzegietatik zaintzeko, ekaitzak aldentzeko; kostaldean, itsasora botaten da ekaitza dagoenean itsasoa baretzeko; soloak gordezteko, etab.

Leku batzuetan, Algortan adibidez, jendeak jan egiten zuen; aurreko urteko ogiarekin berakatz-zopa egiten zen. Seguru nago gaur egun batek baino gehiagok gabon-afarian berakatz-zopa jan behar izanez gero sekulakoak botako lituzkeela. m

Nire aldetik besterik ez, gabon-jaiak ondo igaro eta formalak izan; ostantzean badakizue, Olentzerok ez dizue ezer ekarriko.

Leioako Euskara Zerbitzua eredu bihurtu da alboko hainbat herritan, baita asaoko beste batzuetan be; ezelango duda barik, gauzak ondo egiten dituen seinale. Geuk, haiengana parajetu gura ixen dogu. Hona hemen Zerbitzuko Euskara Teknikari Joxi Arakamak esanekoa.

Testua: Andoni LLosa
Argazkia: Mikel Martinez

—Noz hasi zan Leioako Euskara Zerbitzua martxan, Joxi?

—Ba, hasi... 1995ean hasi ginen ibiltzen. Inguru honetan sortutako lehenengo Euskara Zerbitzua izan zen. Gipuzkoan herri guztiek zuten, Bizkaian hainbat herri ere bai: Bilbok, Ondarruk... baina inguru honetan sortu zen aurrenekoa geurea izan zen.

—Gero, apurka-apurka beste batzuk sortuz joan dira?

—Bai, udalen ekimenez eta gero, Eusko Jaurlaritzak deialdi batean Euskara Zerbitzuak

sustatzeko kanpaina bat egin zuen diru-laguntzen bitartez, eta astiro-astiro sarea zabalduz joan da. Gaur egun Uribe Kostako Mankomunitateak badauka berea, Bakiok ere badauka, Getxok ere sortu du.

—Joxi, zeintzuk dira Leioan, eta oro har eskualde osoan, Euskara Zerbitzu batek dituen zailtasunik handienak?

—Hor sekreturik ez dago, euskararen erabilera bultzatzea da erronkarik nagusiena.

Badakigu eskolek lan handia egiten dutela, eredu euskaldunak gero eta zabalduago daudela, gero eta euskaldun gehiago ateratzen ari da; bestetik, helduen euskalduntzeari begira, lan handia egiten dihardute inguruko eskalategiek... Baina gero kalera zoaz eta ez dago aukerarik edota modurik euskaraz egiteko. Inkesten arabera Leioan %20 euskaraz egiteko gai izan arren erabilera ikaragarri baxua da. Getxon



Haur jaioberriak dituzten gurasoei, ezkerreko moduko baberoa bidali izan die Leioako Euskara Zerbitzuak

egindako ikerketa batzuek adierazi zuten kaleko erabilera %2 edo %3 inguruan dagoela. Beraz, erabilera datza erronka, eta horrekin lotuta euskara beraren kalitatea aipatuko nuke. —Zelan konpondu leitike arazo hori?

—Ez da gauza erraza, ez. Erabilera gehien eragiten duten faktoreak hauek omen dira: zenbat euskaldun duzun inguruan eta zer erraztasun duzun hitz egiteko. Nahiz eta elebiduna izan, erdaraz euskaraz baino errazago moldatzen bazara eta inguruan denak erdaldunak badira... argi dago. —Zelan enfokatzen dozue zuok eginbehar hau?

—Guk arloka banatuta daukagu; eskolekin lanean ari gara eskola orduz kanpoko jarduerak erabat euskaraz izan daitezten. Oraindik hainbat gauza erdaraz egiten bada ere —gehienetan ekintza horren

“Euskararen erabilera datza erronka, eta horrekin lotuta, euskarafren beraren kalitatean”

arduradunek euskaraz ez dakitelako, ahalegindu beharra dago eskola gunea guztiz euskaldun bihurtu dadin. Hizkuntza-kalitate aldetik oraindik ez dugu ezer egin baina zeozer egin beharko litzateke.

—Badago hori egiterik? —Kalitatearena zaila da konpontzen. Egia esan, eguneroko erabilera hutsak kalitatea ere igo egiten du, erraztasuna handitu egiten baita. Umeak zenbat eta gauza aberatsagoak entzun, orduan eta euskara maila jasoago izango du.


—Joxi, gauza jakina da gurasoek euskaraz egiteak eragin

handia duela umeengan. Arlo honetan, gurasoak euskalduntzeko zeozer egin duzue?

—Galdera ona da. Lehen ahaztu zaigu transmisioa aipatzea. Geure herrian gurasoek baino, hizkuntzaren transmisioa, batez ere, eskolak egiten du. Gurasoei begira, sentiberatze kanpaina bat egiten dugu. Haur jaioberriak dituzten guztiei etxera liburuxka informatibo bat (aholku batzuk, euskaraz egiteak daukan garrantzia adierazi) bidaltzen zaie. Opari moduan “babero” bat ere eman izan zaie... Sentiberatze kanpaina horretaz aparte gurasoei euskara eskolak ere eskaini izan dizkiegu, baina frogatuta dago Euskal Herri osoan horrek ez daukala arrakasta handirik. Ez dakit ez dugun asmatzen kanpaina ereduarekin edo. Beharbada beste moduko euskara eskolak eman beharko lirateke, hau da, ipuin euskaldunak irakatsi, etxeko lanak egiteko laguntza... —Uste dut merkataritzan be zeozer egin duzuela euskara kontuan, ezta?

—Zerbait bai, ez sekulako helburuekin baina behintzat errotuloak, mezu komertzialak, eta halako kartelak euskaldundu bai, hauek guztiek eragin bisual handia baitute guban. Bisitak egiten ditugu banan-banan denda guztietan eta itzulpen zerbitzua dohainik eskaintzen diegu. Arlo honetan pozik gaude. Guk 500 komertzio zenbatu genituen eta horien %65ek eskatu zuten euskaraz zerbait ipintzeko. Horrez gain, merkatariei euskara-eskolak eskaini izan dizkiegu, ordugegi berezian, baina ez du arrakasta handirik izan. Ulertu behar da borondate handia behar dela denda itxi eta eskolara etortzeko, ondoren berriz lanera joateko.

—Badakizu “Akabuko Punte”n



Argazkian, Joxi Arakama, Leioako Euskara Zerbitzuko teknikaria

leba handia ematen diogula bertoko jatorrizko euskarari. Zer esan ahal dostezu Leioako euskerak dekon osasunaren ganean? —Orain hasi gara apur bat bertoko euskara landu nahian. Iñaki Gaminderekin harremanetan jarri gara, Gamindek aspaldian egin zuen Leioako euskarari buruzko liburu bat eta orain beste mota bateko ikerketak egiten ari da teknologia berriekin (CD Romak erabiliz...); ohiturak, jaiak, bizimodua... Leioan nolakoa zen. Honelako galderak eginez osatuko du lana. Uste dut publikazioa datorren urtean-edo aterako dela. Beste gauza askorik ez dakit egin daitekeen bertoko euskararekin, zahar

banaka batzuek baino ez dute egiten eta. Ez dakigu zenbat diren, baina orain egin ezean oso zaila izango da inoiz egitea. —Besterik aipatu nahi? —Bai, gauza bi. Batetik, UK aldizkariak eta Leioako Euskara Zerbitzuak hitzarmen bat sinatu genuen maiatzean, UK-k Leioari buruzko lau orrialdeko gehigarri bat argitara zezan. Gehigarri hori bertokoek, leioarrek baino ez dute jasotzen eta dagoeneko zazpi zenbaki eman dira argitara.

Bestetik, esan nahi nuke honako hau, hau da, euskara zerbitzu baten lana, hainbat urtetako lana dela. Makina bat faktore eta arlo batu behar direnez, emaitzak ezin daitezke epe laburrean osotasunean ikusi.

"Tabernatxu" Jatetxea

- MENUAK ASTEAN ZEHAH
- ASTEBURUETAN GAUEZ, MENU BEREZIAK

Zientootxe 39, GETXO. T: 491 16 61



Juan Bautista Zabala 12, 2.
ALGORTA
460 00 38
460 63 41

- 1 IKASTARO TRINKOAK
- 1 UDA ETA NEGUA
- 1 GOIZEZ ETA ARRATZALDEZ
- 1 UMEAK, GAZTEAK ETA HELDUAK

Ingelesa
Frantsesa
Alemanier

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!
T: 460 38 90
Errotalde 18A
ANDRA MARI GETXO

SANTANA KIOSKOA

Prensa eta aldizkariak
Santana kalea, Amaiarekin bat

I

Iñaki Bitxitegia



OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 4302345

HOROSKOPOA

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Arreta handia eskaini zure inguruan geratzen den guztiari. Itxuraz interesik ez duen zoezerri garrantzirik ez emateak, lorpen handi baten atek itxiko dizkizu eta. Ez ezazu egunotan ezer sinatu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Umilagoa izan eta onartu ezazu behingoz inor ez dela egia absolutuaren jabe. Besteei entzun, gogoeta egin. Zure iritziak argi eta garbi azaldu, eta ez utzi gauzak erdibidean.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Oso sentikor egongo zara, eta baliteke malko bat baino gehiago isuri behar izatea, horrenbeste maite duzun pertsona eragindakoak. Oraingo minak merezi du, epe luzera saria jasoko duzu eta.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Ohi baino lanpetuago ibiliko zara batez ere beharren, baina honek irabaziak ekariko dizkizu, bai arlo ekonomikoan eta bai pertsonalean ere. Edozein arazo konpontzeko gauza zara.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Gozamenerako eta dibertsiorako garai ona baina ez, ordea, negoziotarako. Erabakiren bat hartu behar baduzu, itxaron. Aprobexatu eta lagunekin, etxekoekin... dibertitu zaitzez.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Inguruaren eragin txarretatik urrundu, ez zaitzez ergela izan, ekaitza dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da. Denbora gehiago eskaini zeure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure zintotasunak, gauzak hain argi esateak, pertsona bat baino gehiago mindu dezake. Gogoratu diplomaziaz gauza bera esan daitekeela. Pozik sentituko zara; iraganeko arazoak... iragana dira.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Bikotearekin gozatzeko garai ona duzu. Ez badaukazu, harremanen baten aukera ikusten da. Zure eskuetan dago, sedukzioarako zure gaitasuna topean dagoelako eta eskatzen duzun guztia lortzen duzu.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Nahiz eta zu konturatu ez, nerbioak jota zabilta, lasaitu behar duzu. Lasaitasunetik abiatzen bazara hobeto egin diozu aurre etor daitezkenari eta gainera, ez duzu horrenbeste huts egingo.

META



(Irailak 17 urriak 16)
Baten ala bestearen alde azaltzea eskatzen badizute, saiatu zaitzez alderdikeriarik gabe jokatzen. Ez zaitzez jokoan sartu zuzenki ukitzen ez bazaitu. Jendea behar duzu, horregatik zabilza batetik bestera.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Egoera latz eta mingarrien aurrean patxada handia agertzen duzu eta horregatik jendeak zuzana jotzen du laguntza eske. Zure mugak ezagutzen badituzu, ez diozu inori hutsik egingo.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Gauza on asko lortuko dituzu, meritoa zurea izango da, nahiz eta inor konturatu ez. Etxekoaren artean aspaldiko partez, oso gustura sentituko zara. Egoizu kasu zure bihotzari, ez zara erratuko!

DENBORAPASA

EZKER-ESKUIN:

1- Kantari getxotarra 2- Zapi. kanpo 3- ...ke, mahai jokia. Arabiarra zentzu despektiboan 4- Oparitua. Jainko egipziarra 5- Lore-hauts. Neoia (ald.) 6- Teutoia 7- Jainko egipziarra. Autoak hirietan aparkatzeko ordaindu behar dena (ald.). Letra bat 8- Bokala. Euskadi Gaztea! Señale... Euskal Herriko Unibertsitatea 9- Oinarritzko edaria. Bat. Letra grekoa (ald.)10- Artoaren burua

GOITIK BEHERA:

1- Euskal idazlea 2- Antzinako fonografoa. Oinarritzko edaria 3- Alderdi arabar espainolista. Liburu, aldizkari, etab.en banako bakoitza. ...pezientos (ald.) 4- Arpa berbaren erdian. Julio Verne-ren pertsonaia ospetsua. Lehenegoa 5- Ekialdeko herria. Bilboko autoetan (ald.) 6- Zero. Bokala. Bere arka ospetsua da. Bokala 7- Zelaia. Toki horretan 8- Segituan, oraintxe bertan. Lider, buru.

		1	2	3	4	5	6	7	8	
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

SOLUZIOAK
EZKERRETIK ESKUINERA: Egiptu, ur, ar, mono, emana, ra,
Ezkerretik eskuinerara: g, e, o, m, a, n, i, o, n, e, t, e, r, a,
GOITIK BEHERA: Ezkerretik eskuinerara: U, o, r, e, n, e, n,
Rumania, ib, o, o, Nore, u, lareta, hor, artoan, gura



AZERI & BIVAFEGO "DELITU BAT SALATZEN"



azeri eta bivafego
jaunok, zuen arabera,
24ko gauean gizon bat
zuen etxean teilatutik
indarrez
sartu zen...



...eta egongelan kutxa
bartzuk manipulatzek
ibili zen, zuzena da
hori?



ondo da, identifika
dezakezue pertsona hori
gizon hauen artean?



jakina,
agente jauna,
SEI zenbakiiduna
da...

lasai, rudlof... ikusiko
duzu, segituan aterako
gaituzte
hemendik...

BUKATU DA

FOTOnobela BASA- GOITI 79

Arretaz irakurri; xehetasunak garrantzitsuak dira-eta.

TXARRIBODA

3. ATALA

* Abisua: fotonobela hau fikzio hutsa da

18


Gidoia: Xabier & Jokin
Argazkiak: Mikel Martinez



GOGORATZEN AL DUZUE ZELAN AMAITU ZEN AURREKO ATALA? ALTZEHIMERRA DUZUENONTZAT, HONA HEMEN ARGAZKI HURA. ZERK ERAGIN OTE ZUEN GURE LAGUNEN HARRIDURA AURPEGIA...



Itzuliko nintzela esan nizuen eta **itzuli naiz!** Gogoan al duzue "Texasko hilakuntza" filma? Ba, horren aldean hemen eta orain gertatuko dena txantxa hutsa da! Hasi zaiteztekete otoitz egiten!



Jo tio, kalmatu zaitez! Ez nekien Consuelo ezkontuta zegoenik! Eta are gutxiago zurekin! Eta gainera sei hauts bota genituen bakarrik... lasaitu gizona! Rollito ona...



Barkatu, laztana, maitea, ene azukre koxkora... Nahigabe izan zen! Guztiz damututa nago eta akabatzen banauzu ezin gara berriro elkarrekin egon... eta egin... Ez da berriro gertatuko!!



Ez kezkatu jauna! Ez dago diruak konpon ez dezakeenik. Gu biok erraz heldu gaitzeko probetuzko tratu batera.



Ez det hil nahi! Ez det hil nahi! Ze arrazoi dek gu guztiak bertan akabatzeke! Hil ezak hire emaztea nahi badek... nik ez det ezer egin! AITAAAHHH!!!



Eeeeeezzz! Larrutik ordainduko duzue guztiok... denak igualak zarete... bekatari alenak... eta infernua erre zaitez-tela!



Zergatik ni? Zergatik labean?



Oin badakit zelan sentiduten dan pizza bat labatik urten barri!



Ze putada!



Jesus!! Gezurrezkoa ematen zuen pistola horek hara zer nolako aberia egin didan! Traje berria hondatu dit!



Ai ama! Ilea moztu dit! Ezin det itxura honekin *The image*-era joan eta gainera gaur *La (mayor) oreja de Van Gogh*-ek jotzen du!



Pijak beti pijokeriatan! Jakingo banu eskuak eskuak non dauzkan, gustura moztuko nioke nik gelditzen zaion guztia!

BERANDUAGO



Baina zer gertatu da hemen? Beno berdin da, Hementxe dago eskatu duzuen pizza, ordaindu eta banoa.



Pizza bat? Baina nori buruatu zaio orain pizza bat eskatzea?





Eeeeeezzz! Nik ez dut inora deitu!



Ba Consuelori ez, seguru! Arturooo...



Aski da, zoratu al zerate denak? Hemen behar deguna mirari bat da!



Kaixo lagunok, Ez dakit zelan azaldu naizen historia honetan bain argi dago etxe honetan nire zerbitzuak behar dituztela. Anton magoa naiz, munduko magorik onena eta demostratuko dizuet. Lagun hauek lokartuko ditut eta esnatzean ez dute gertatu zaien tragedia gogoratuko!

TATXANN!!!



Hau siesta gozoa egin dudana!!

Untxi batekin egin dut amets

Jo Mikel, osea, zu beti berdin!

Zer gertatu da hemen, ez naiz ezertaz oroitzen, Non nago? Zer egun da gaur?



Gaur? Abenduak 31, Gabonzahar eguna lagunok, mugidu eperdi eta topa in daigun... siglobeintiuno dator eta!



MILAUORTEKO BARRI ON... ...ETA BUELTAK AMARI!!!